

DEIALDIA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN MIKROKREDENTZIALEN PROPOSAMENAK AURKEZTEKOA, "UNIBERTSITATE MIKROKREDENTZIALAK GARATZEKO PLANA" GAUZATZEARI BEGIRA, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN BAITAN ("MICROCREDS PLANA", 21. OSAGAIA, 6. INBERTSIOA)

1. AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA

Bizitza osoko prestakuntza giltzarria da garapen sozial, ekonomiko eta pertsonalerako gaur egungo jendarteetan. Europako Kontseiluak berak aitortzen du printzipio hori, eta garrantzi estrategikoa hartzen du gaur egungo testuinguruan, non merkatua etengabe aldatzen ari den, teknologia aurrera doan eta ezinbestekoa den erronka globalei erantzutea. Estatuan orain dela gutxi legeak dinamika berri bat ekarri du unibertsitate mailako hezkuntzara, eskaintza egokitu ahal izateko etengabeko eguneraketa eskatzen duen gizartearen eskakizunei, eta egunetik egunera aldatzen ari den lan merkatuaren ezaugarriei. Unibertsitateak lanean dihardu sortzen duen jakintza enpresari eta gizarte osoari transferitzeko berak bakarrik eskain dezakeen kalitate akademikoarekin, hau da, ekarpen balioduna eginez ikuspegi akademikotik, erabilgarria alde profesionaletik eta aberasgarria maila pertsonalean. Ildo horretatik, bai Unibertsitate Sistemaren Legean (2/20023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa) eta bai irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan, etengabeko edo bizitza osoko prestakuntza aipatzen da unibertsitatearen irakats zereginaren funtsezko osagai gisa.

Hori bat dator Gaitasunen Europako 2020ko Agendan ezarritako helburuekin, bertan azpimarratzen baita ikasteko aukera egokiak herritar guztien esku jartzearen garrantzia, arreta berezia emanez enplegarritasunari, gizartearen kohesioari eta Europaren lehiakortasunari. Horri gehitzen zaio Eskubide Sozialen Europako Zutabeko ekintza plana, Porton onartu zena 2021ean, bertan asmo handiko helburu bat ezarri baitzen 2030erako: 25 eta 64 urte bitarteko pertsonen %60k gutxienez urtean prestakuntza ekintzaren bat egitea. Horretarako, 2022ko ekainaren 16an gomendio bat onartu zen etengabeko ikaskuntzarako eta enplegarritasunerako mikrokredentzialen ikuspegi europar bat ezartzeko. Horrek indartzen du EBko estatu kideen konpromisoa hezkuntza eredu malgu eta inklusiboak sustatzeko, pertsonen aukera emango dietenak bizitza osoan zehar gaitasunak eskuratu, eguneratu eta ziurtagiriz egiaztatzeko. Ekimen hauek nabarmendu dute beharrezkoa dela hezkuntza eta prestakuntza sistemak egokitzea etengabe aldatzen dabilen munduaren eskakizunei erantzuteko, hartara berma dezagun pertsona bakoitzak bere bizitzako eta ibilbide profesionaleko edozein unetan izango duela bere ahalmenak garatzeko aukera.

Etengabeko edo bizitza osoko prestakuntzarako aukeren artean, mikrokredentzialak kalitatezko irakaskuntzak dira beren enplegarritasuna hobetu edo beren ezagutzak eguneratu nahi, baina ikasketa luzeak egiteko modurik edo denborarik ez daukaten helduentzat. Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuak, unibertsitate ikasketen antolamendua eta kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituenak, mikrokredentzialak aipatzen ditu 37. artikuluan, unibertsitateak eman ditzakeen berezko ikasketen artean. Artikulu horrek dioenez, mikrokredentzialak 15 ECTStik beherako ikastaroak dira; haietako batzuk egiteko unibertsitateko titulazioa beharko da, baina beste batzuetarako ez, eta kasu guztietan ziurtagiriak eskuratu ahal izango dira.

Berezko Ikasketen Arautegian (UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2023ko urriaren 19an onartua eta 2023ko azaroaren 22ko EHAAn argitaratua), 14. artikuluan aipatzen dira mikrokredentzialak, etengabeko prestakuntzako ikasketen artean. Bertan esaten denez, mikrokredentzialak 15 ECTS kreditu baino gutxiagoko ikastaro laburrak dira, modua ematen dutenak ikasitakoa egiaztatzen duen ziurtagiri bat eskuratzeko. Zenbaitetan, beharrezkoa izango da aurretik unibertsitate titulu bat izatea mikrokredentzialak egiteko, baina ez beti. Bestalde, haien helburua da ezagutza, trebetasun eta gaitasun berrien premia asetzea, pertsona guztiek bete-betean eta bizitza osoan zehar parte har dezaten gizartean. Ildo horretatik, mikrokredentzialak pentsatuta daude enplegarritasuna hobetzeko, espezializazio handiko birkualifikaziorako, lanbide berrietara birbideratzeko, unibertsitaterako jauzia egiteko edo pertsonen inklusio sozialean laguntzeko.

2023ko ekainean Unibertsitate Ministerioak Espainian mikrokredentzialak garatzeko ekintza plana argitaratu zuen, ingurune produktibo eta sozialaren eskakizun aldakorrei aurre egite aldera. Planaren asmoa da kalitate handiko unibertsitate mikrokredentzialak eskaintzea hainbat arlotan, herritar helduak birkualifika daitezen, lan eremuan eskatzen diren trebetasun eta gaitasun espezifikoak emango dizkieten ikastaro labor, malgu, modular eta metagarrien bitartez. Plan hori kokatzen da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (SEEP), zeina Ministroen Kontseiluaren Akordioak onartu baitzen 2021eko apirilaren 27an. Europar Batasunak bultzatzen du formula hau eta haren helburua da COVID-19aren pandemiaren ondorioak leuntzea, ekoizpen sarea modernizatzea, digitalizazioa bultzatzea, deskarbonizazioan aurrera egitea eta ikerketarako eta prestakuntzarako egiturak hobetzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (UE) Erregelamenduaren arabera. SEEPera itzuliz, haren VII. palanka politika deritzona hezkuntza, jakintza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapenari buruzkoa da. Haren baitan 21. osagaia aurkitzen dugu, hezkuntza sistemaren modernizazioari eta digitalizazioari buruzkoa. Osagai horren barruan 6. inbertsioa dago, unibertsitate mikrokredentzialak garatzeko dena. Helburua da gutxienez 60.000 mikrokredentzialeko eskaintza bat sortzea, denak ere 15 ECTS baino gutxiagokoak, eta gutxienez 1.000 prestakuntza ekintzaren artean banatuak. Unibertsitate mikrokredentzialak lan merkatuan behar diren ezagutza eta gaitasun espezifikoak eskuratzeko modua eman behar dute, banakako ikastaroen edo ikastaro edo unitate sorta baten bitartez. 2023ko abenduaren 21ean Unibertsitate Politikari buruzko Konferentzia Orokorra Ministroen Kontseiluaren 2023ko abenduaren 19eko Akordioa berretsi zuen, zeinaren bidez lurraldeen artean banatu ziren autonomia erkidegoek kudeatu behar dituzten kredituak, plana 2023, 2024, 2025 eta 2026 urteetan gauzatzeko. Gero, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate ministroaren 2023ko abenduaren 27ko Aginduaren bidez, akordiotik sortutako kreditu banaketa eta finantziario konpromisoak formalizatu ziren. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoari 2.174.683 euro esleitu zitzaizkion 2.610 kredentzial digital sortzeko, gutxienez 44 mikrokredentziala lotuak, helburu dutenak herritar helduei ematea lan merkatuaren eskakizunak aseko dituzten ezagutzak eta gaitasunak.

2024ko abenduaren 30ean Eusko Jaurlaritzak UPV/EHUri eskualdatu zion EAeri esleitutako zenbateko hori, horretarako eranskin bat gehituz EAEko administrazioak (Hezkuntza sailaren bidez) eta UPV/EHUK 2023-2026 eperako sinatua duten "Unibertsitatea+Enpresa+Gizartea" programa kontratuari, esan bezala 2023tik 2026ra bitarteko ekitaldietan unibertsitateak mikrokredentzialak gara ditzan, Europar Batasuneko Next Generation funtsekin finantzatzutako Suspertze, Eraldatze eta

Erresilientzia Planaren baitan (6. inbertsioa, 21. osagaia). UPV/EHUk 2026ko ekainaren 30era bitarteko epea dauka esleitu zaion zenbateko horrekin 2.610 mikrokredentzial sortzeko. Bestetik, irailaren 15era arteko epea izango du ziurtagiriak emateko tramite guztiak egiteko eta Mikrokredentzialen Planeko gastuak justifikatzeko, Eusko Jaurlaritzak eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak zehaztuko dituzten baldintzei jarraituz.

Horrenbestez, Euskal Herriko Unibertsitateko Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzak unibertsitate mikrokredentzialak prestatu eta emateko dirulaguntzen deialdi hau argitaratzen du, 25 eta 64 urte bitarteko herritarren birkualifikazio premiak betetzeari eta haien enplegarritasuna hobetzeari begira. Deialdia finantzatuko da "Unibertsitatea+Enpresa+Gizartea 2023-2026" programa kontratuari gehitutako eranskinaren bidez, zeina 2024ko abenduaren 30ean sinatu baitzen.

2. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da dirulaguntzak ematea Euskal Herriko Unibertsitatean mikrokredentzialak sortu eta emateko 25 eta 64 urte bitarteko pertsonen, dokumentu honetan zehaztutako baldintzak betez gero.

3. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO BALDINTZAK

Mikrokredentzialak proposatzeko beharrezkoa izango da UPV/EHUko irakaslea izatea eta unibertsitate hedakuntzako diplomak eta ikastaroak zuzentzeko baldintzak betetzea, UPV/EHUko Berezko Ikasketen Arautegiko 30. artikuluari jarraituz.

Edozelan ere, proposamenak izan beharko du irakaslea atxikita dagoen ikastegiaren bermea.

Irakasle batek mikrokredentzial bat baino gehiago proposatu ahal izango ditu, UPV/EHUko Berezko Ikasketen Arautegiko baldintzak betez gero.

4. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ETA MIKROKREDENTZIALAK GAUZATZEKO EPEA

Proposamenak 2026ko martxoaren 13ra arte aurkeztu ahal izango dira, edota Microcreds Planeko funtsak agortzen diren arte, data hori baino lehen amaitzen badira. Prestakuntza bera emateko epea 2026ko ekainaren 15ean amaituko da.

5. DIRULAGUNTZA LORTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Zuzenduta egon beharko dira 25 eta 64 urte bitarteko ikasleei. Mikrokredentziala ematen hasten denerako bete beharko da baldintza hori.

- Prestakuntza diseinatu egon beharko da birkualifikazio premiak betetzeko eta enplegarritasuna eta berrikuntza bultzatzeko sektore produktiboetan eta gizartean, oro har.
- Prestakuntzak erantzuna eman beharko dio enpresa, administrazio publiko, elkargo profesional, elkarte edo kolektibo batek formalki adierazitako premia edo interes bati. Beraz, egiaztatu beharko da enpresa edo erakundeak bere profesionalentzako prestakuntza edo birkualifikazio eskari hori egin duela. Horretarako, "Interes adierazpena" izeneko dokumentua aurkeztu beharko dute. Horren eredu arautua Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzak prestatu du, Microcreds Planeko dirulaguntzaz finantzatuko diren unibertsitate mikrokredentzialak eskatzeko.
- 15 ECTS baino gutxiagokoak izan beharko dira.
- UPV/EHUko fakultate edo ikastegi baten bermearekin aurkeztu beharko da proposamena.
- Zuzendari akademikoak UPV/EHUko irakasle-ikertzaileak izan beharko dira, baina onartuko da beste unibertsitate edo erakunde bateko zuzendarikideak egotea.
- Mikrokredentzialak esplizituki diseinatu egon beharko dira ikaskuntzaren emaitza jakin batzuk lortzeko.
- Ziurtagiria lortzeko, ikasleek beren ezagutza, trebetasun edo gaitasunen ebaluazio positiboa lortu beharko dute.
- Saioak aurrez aurrekoak, birtualak edo hibridoak (sinkronikoak edo asinkronoak) izan ahal izango dira.
- Mikrokredentzialak ematean kalitatea bermatzeko barne sistema baten eskakizunei eutsiko zaie.
- Matrikularen prezioa ez da izango mikrokredentziala sortu eta ematea kostatu denaren %30 baino txikiagoa. Matrikularen prezioa ez da inoiz izango mikrokredentziala sortu eta ematearen kostua baino handiagoa.
- Mikrokredentzialaren akreditazioa ziurtagiri digital bat izango da, haren segurtasuna, egiazkotasuna eta nazioarteko transferigarritasuna bermatzeko, eta zorro digitalean gorde eta ikusi ahal izateko. Egiaztapen hori Europassen edo helburu horiek betetzen dituen bestelako ziurtagiri digitalen baten bidez egingo da.

6. UPV/EHU_n UNIBERTSITATE MIKROKREDENTZIAL BAT DISEINATZEKO GOMENDIOAK

- Lehentasuna emango zaie 1 eta 3 ECTS arteko prestakuntza pilulei (10 eta 30 ordu bitartekoei). Edozelan ere, 15 ECTS (hau da, 150 ordu) baino gutxiagokoak izango dira beti.

- Normalean ikastaro bakoitzak 20 ikasle izango ditu batez beste. Gutxieneko ikasle kopuru bat zehaztu beharko da proposamena ekonomikoki bideragarria izateko, eta gehieneko ikasle kopuru bat kalitatea bermatzeko.
- Ordutegiak eta irakaskuntza modua balizko hartzaileen arabera egokitzea komeni da, ikastaroa eta lana bateragarriak izan daitezen.
- Gomendatzen da orduko prezioa gehienez 125 € izatea, bai irakaskuntzarako eta bai zuzendaritza eta koordinaziorako.
- Bost jakintza eremu nagusietarako proposamenak bultzatuko dira.
- Gomendatzen da hizkuntza kasuan kasuko kolektiboari eta lan eremuari egokitzea, eta euskararen presentzia bultzatzea eskaintzan.

7. MIKROKREDENTZIAL BAT PROPOSATZEKO ETA ABIAN JARTZEKO PROZEDURA

A. PROPOSAMENAK NOLA AURKEZTU

- Mikrokredentzialak proposatzeko beharrezkoa izango da UPV/EHUko irakaslea izatea eta unibertsitate hedakuntzako diplomak eta ikastaroak zuzentzeko baldintzak betetzea (UPV/EHUko Berezko Ikasketen Arautegiko 30. artikulua). Edozelan ere, proposamenak izan beharko du irakaslea atxikita dagoen ikastegiaren bermea.
- Ikastegiak hartuko du bere gain mikrokredentziala antolatzearen ardura, ikasketa hori eskolaren edo fakultatearen eskaintzaren barruan sartuko da gainerako titulazioekin batera, eta kalitatea bermatzeko sistema bat izan beharko du, ikastegi arduradunak berak bermatua.
- Zuzendari akademikoa UPV/EHUko plantillakoa izan beharko da. Kanpoko erakundeekin batera ematen diren mikrokredentzietan, erakunde horiek arduradun bat izendatu ahal izango dute zuzendari akademikoari laguntzeko.
- Zuzendari akademikoak mikrokredentziala emateko proposamena prestatu eta aurkeztuko du, Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzaren jarraibideen arabera (LAGUNTZA GIDA). Honako informazio/dokumentu hauek igo beharko ditu horretarako prestatuko den plataformara:
 - Hasierako proposamena, plataforman egongo den formularioa betez.
 - Aurreikuspen ekonomikoa, plataforman egongo den Exceleko txantiloia betez. Txantiloian Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzak kredentzial bakoitzerako aurrez ezarritako kostu batzuk egongo dira, adibidez kudeaketa administratiboari dagozkionak eta % 6ko atxikipena, UPV/EHUri sortutako zehar kostuengatik. Horiek igo egingo dute matrikularen kostua, ez baitira finantzarriak izango.

- Mikrokredentzialarekiko interesa agertu duen enpresa, administrazio publiko, elkargo profesional, elkarte edo kolektiboaren "interes adierazpen" formala.
- Matrikulagatik aurreikusitako diru sarrerak ezin izango dira izan aurrekontuan aurreikusitako gastuen % 30etik beherakoak.
- Prozesu osoan mikrokredentzialaren zuzendari akademikoak Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzako teknikarien laguntza izango du bere esku.
- Eskaria aurkeztean zuzendariak konpromisoa hartzen du eskaria onartzen bazaio deialdi honetako betebeharrak betetzeko.
- Jakinarazpen guztiak eskariaren sinatzailearen helbide elektroniko korporatibora bidaliko dira.

B. PROPOSAMENAREN BALORAZIOA ETA ONARPENA

- Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzako teknikariek eta Gradu Batzordeko mikrokredentzialen Azpibatzordeko teknikariek Mikrokredentzialaren hasierako proposamena aztertuko dute. Ezer zuzendu behar bada, edo proposamena hobetzeko iradokizunik badago, zuzendari akademikoei bidaliko dizkiote, egin beharreko moldaketak egin ditzan.
- Behin betiko proposamena prest dagoenean, kasuan kasuko ikastegiari bidaliko zaio, oniritzia eman diezaion.
- Ikastegiak oniritzia eman eta gero, proposamena Graduondoko Batzordeari aurkeztu beharko zaio ontzat jo dezan.
- Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzako teknikariek zuzendari akademikoari adieraziko diote proposamena onartua izan den ala ez.
- Graduondoko Batzordeak onartutako proposamenen artetik, kredituko 200 € baino gehiago balio ez dutenak Gizarte Kontseiluari aurkeztuko zaizkio prezioak baliozkotu ditzan. Muga hori gainditzen dutenak Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurara eramane beharko dira, eta mikrokredentzial horiek ezin izango dira eman harik eta organo horrek prezioa ofizialki onartu arte.
- Proposamena onartuta, zuzendari akademikoari eskatuko zaio falta diren datuak emateko, baten bat faltaz gero, hartara matrikula epea zabaldu ahal izateko.
- Mikrokredentzialaren proposamena, aurrekontua eta informazioa biltzen dituen plataforma informatikoaren inguruko kontu guztiak eta matrikularen kudeaketari buruzkoak plataformako teknikariek eramango dituzte.

C. MIKROKREDENTZIALA ABIAN JARTZEKO PROZESUA

- Matrikula epea behin itxita, mikrokredentzialaren zuzendari akademikoari matrikulatutako ikasleen zerrenda bidaliko zaio.
- Matrikula epea amaitzen denean, zuzendari akademikoak sarrera eta gastuen arteko oreka bermatu beharko du. Beraz, Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzako teknikarien laguntzaz, aurrekontua doituko du matrikulako behin betiko datuekin, eta posta elektronikoz bidaliko du mikrokredentzialak@ehu.eus helbidera, ontzat eman dadin eta plataforman egunera dadin, beharrezkoa bada.
- Mikrokredentziala bideragarria dela behin berretsita, Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzako teknikariak Campus Birtualeko Zerbitzuarekin koordinatuko dira ikastaroa irekitzeko EHUon irakaskuntza plataforma espezializatuarekin. Zuzendari akademikoa eta ikastaroko gainerako irakasleak matrikulatuko dira bertan, ikastaroko edukiak igo ahal izateko. Era berean, ikasleak matrikulatuko dira eta zuzendari akademikoari zerrenda bat bidaliko zaio, ikastaroan matrikulatutako pertsona bakoitzaren erabiltzaile eta pasahitzarekin, plataforman sartu ahal izan daitezen.
- Zuzendari akademikoak plataforman sartzeko xehetasun horiek bidaliko dizkie matrikulatutako ikasleei, eta, nahi badu, bestelako informazioa ere emango die ikastaroaren hasieraren edo garapenaren inguruan.

8.GASTUAK

GASTU FINANTZAGARRIAK:

- Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzak egindako gastuak. Zalantzarik gabe bat etorri beharko dira dirulaguntza esleitu zaien jardueren izaerarekin; behar-beharrezko gastuak izan beharko dira; eta ministerioaren esleipen agindua argitaratu zenetik 2026ko ekainaren 30era bitartean egindakoak.
- Unibertsitateko IRlek eta TEKAZeak proiektuan zuzenean emandako denborari dagozkion kostuak, eta programa honekin zerikusi zuzena duten lanetarako kontratatzen diren langile berrien kostuak.
- Dirulaguntza hauetaz egingo diren jarduerak egiteko erosten diren material eta hornigai ez-inbentariagarrien kostuak.
- Dieta eta bidaia gastuak, baldin eta ezinbestekoak badira jarduerak egiteko eta kasuan kasuko arauei jarraituz egiten badira. Ostatu gastuak kudeatuko dira Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen eta gerentearen 2024ko otsailaren 23ko Erabakiaren arabera (UPV/EHUko zerbitzuengatik eta protokolo eta ordezkaritza gastuengatik ordainen arloko zehaztapenei buruzkoa).

GASTU EZ FINANTZAGARRIAK:

- Tresneria inbentariagarria erosteko gastuak.
- Finantza kostuak eta zeharkako zergak, adibidez Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa).
- Aurrekontu gastuak eta gastu errepikatuak.

9. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ikastaroa amaitu aurretik, parte hartzaileen ikaskuntzaren emaitzak ebaluatuko dira, irakasleek erabakiko duten sistemaren bidez. Era berean, ikasleek ere ebaluatuko dute jasotako prestakuntza.

Kalitatearen jarraipenari dagokionez, mikrokredentzialak txertatuko dira ikastegiek titulazioei jarraipena egiteko daukaten KBBSn. Horretarako, zuzendari akademikoak bete beharko du UPV/EHUko UNIKUDE plataforman mikrokredentzialetarako eskatzen den informazioa. Horrela, ikastegiek jarraipena egin ahal izango diote mikrokredentzialen kalitateari plataforma horren bitartez.

10. MIKROKREDENTZIALEN ZIURTAGIRIAK

Unibertsitateak mikrokredentzialen ziurtagiri digitalak emango ditu Europass plataforman, European Learning Model (ELM) estandarraren baitan, EDC gisa (European Digital Credentials for Learning), edo ziurtagiri digital horiek emateko modua eskaintzen duen eta Microcreds Planaren eskakizunak betetzen dituen beste plataforma batean. Ziurtagiriak Europako Hezkuntza Eremuko estatu guztietan daude aitortuta eta paperezkoen balio legal bera daukate.

11. PUBLIZITATE BETEBEHARRAK

Deialdi honetako ikastaro guztien materialek eta publizitateak eraman beharko dituzte Eusko Jaurlaritzak, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioak eta Europar Batasunak ezarritako logoak.

Zabalkunderako baliabide fisiko eta birtual guztiak egongo dira aurreko paragrafoan aipatutako publizitate betebeharraren menpe: publizitate paperak, errotuluak, eskuorriak edo iragarkiak, sare sozialetan, webguneetan eta UPV/EHUko nahiz kanpoko bestelako hedabideetan zabalduetakoak, eta, orobat, dirulaguntza jasotako proiektuari edo eskaintako mikrokredentzialari erreferentzia egiten dioten informazio edo publizitate kartel fisiko guztiak.

Gainera, dirulaguntza jasotako jardueran erabiltzen den dokumentazio guztian, irakasmaterialeetan, ziurtagirietan eta kudeaketa dokumentuetan ere agertu beharko da publizitatea.

Gutxienez, aipatutako erakundeen logo ofizialak agertuko dira, honako hurrenkera honetan:



10. JUSTIFIKAZIOA

Deialdi honetako dirulaguntza jasotzen duten mikrokredentzialen zuzendariak behar diren justifikazio dokumentuak aurkeztu beharko dituzte egindako guztia egiaztatzeko, bereziki sarrerak eta gastuak. Horretarako, aurrekontu eguneratua aurkeztuko dute, behin betiko gastuen arabera. Dokumentazioak bete beharko ditu Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzak dirulaguntza justifikatzeko ezarritako jarraibideak, eta bereziki Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko funtsen justifikazioari buruzko jarraibideak.

Ainhoa Berasaluze Correa
Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordea
Vicerrectora de Posgrado y Aprendizaje Permanente